

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

517/2017 Foru Agindua, azaroaren 20koa, Balio erantsiaren gaineko zergaren aitortpen ez-aldizkakoa aurkezteko 308 eta 309 ereduak onartzen dituen, eta zergaren aitortpen-likidazioak agiri bakar batean aurkezteko arrantzaleen kofradien eskaerei buruzko foru agindua indargabetzen duena.

Azken urte hauetan, Balio erantsiaren gaineko zergaren aitortpen ez-aldizkakoa aurkezteko 308 eta 309 ereduak onartzen dituen 2010eko ekainaren 4ko 498/2010 Foru Aginduaren bidez arautu dira 308 eredu, «Itzulketa eskaera. Baliokidetasun errekarua, BEZaren Erregelamenduko 30 bis artikulua eta balio erantsiaren gaineko zergaren noizbehinkako subjektu pasiboak» eta 309 eredu, «Balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazio ez-aldizkakoa».

308 eredu aurkeztera behartutako zergapekoen artean, erakunde publikoak edo gizarte izaerako establezimendu pribatuak sartzen dira, baldin eta eskatzen badute, ondasunak eskuartzean jasandako kuotetatik guztiz kendu ezin izan dituzten kopuruen itzulketa, gero ondasun horiek haien jarduera humanitario, karitate edo hezkuntzako eremuan Batasunetik kanpora esportatzen dituzten organismo aitortuei entregatzen dizkietean, salbuespenerako eskubidea onartu ondoren.

Gainera, eredu horiek telematikoki aurkezteko aukera sartu behar da eredu buruzko foru aginduan. Hori horrela, eredu horiek bi modutan aurkeztu ahal izango dira: telematikoki eta paperean.

Aurreikusita dago aurkezpen elektronikoa internet bidez egi-tea, Ogasun eta Finantza Departamentuak eredu guztiak aurkezteko ezarri nahi duen «Zergabidea» sistema berria erabiliz. Dena den, kontuan hartuta sistema pixkanaka ezartzen ari dela, foru aginduak xedapen iragankorren dio 308 eta 309 ereduak plataforma berrian sartu bitartean haiek formulario bidez aurkeztuko direla, betiere ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, ezartzen duenaren arabera.

Bestetik, komeni da argitzea foru aginduaren barruan elkarrekin jasota daudela Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuari buruzko aipamenak eta 1992ko abenduaren 28ko 37/1992 Legeari buruzko aipamenak. Horren arrazoia da balio erantsiaren gaineko zergaren foru araudia egokitu ez izana Estatuak zergaren legean Aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurri buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legea onartu zuenetik sartu diren aldaketetara. Hori horrela, kontuan hartuta 2002ko maiatzaren 12ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Ekonomia Itunak 26. artikuluan jasotakoari jarraituz balio erantsiaren gaineko zerga tributu itundua dela eta lurralde historikoetan mo-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

Orden Foral 517/2017, de 20 de noviembre, por la que se aprueban los modelos 308 y 309 de declaración no periódica del impuesto sobre el valor añadido, y se deroga la orden foral reguladora de las solicitudes de las Cofradías de Pescadores para la presentación de las declaraciones-liquidaciones del impuesto en un solo documento.

Por Orden Foral 498/2010, de 4 de junio, por la que se aprueban los modelos 308 y 309 de declaración no periódica del Impuesto sobre el Valor Añadido, se ha venido regulando estos últimos años los modelos 308, «Solicitud de devolución. Recargo de equivalencia, artículo 30 bis del Reglamento del IVA y sujetos pasivos ocasionales del Impuesto sobre el Valor Añadido», y 309 «Autoliquidación no periódica del Impuesto sobre el Valor Añadido».

Entre los obligados a presentar el modelo 308 se incorpora a los Entes públicos o establecimientos privados de carácter social, que soliciten la devolución de las cuotas soportadas que no hayan podido deducirse totalmente, en la adquisición de bienes que sean objeto de una entrega posterior a Organismos reconocidos que los exporten fuera del territorio de la Comunidad en el marco de sus actividades humanitarias, caritativas o educativas, previo reconocimiento del derecho a la exención.

Además, resulta necesario incorporar a la orden foral reguladora de los modelos la posibilidad de su presentación telemática, de manera que serán dos las posibles formas de presentación de ambos modelos: la telemática y la realizada en soporte papel.

Se prevé que la presentación electrónica se realice por Internet, mediante «Zergabidea», el nuevo sistema que el Departamento de Hacienda y Finanzas pretende implantar para efectuar la presentación electrónica de todos los modelos. No obstante, teniendo en cuenta que la implantación del sistema se va a llevar a cabo de forma gradual, la disposición transitoria única de la orden foral establece que, en tanto que los modelos 308 y 309 no se incorporen a la nueva plataforma, su presentación se lleve a cabo mediante formulario, con arreglo a lo previsto en la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

Por otra parte, conviene aclarar que en la orden foral conviene remisiones al Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, por el que se adapta la normativa fiscal del Territorio Histórico de Gipuzkoa a la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido con remisiones a la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, y ello porque la normativa foral del Impuesto sobre el Valor Añadido no se ha adaptado a las modificaciones introducidas a nivel estatal en la ley del impuesto desde la aprobación por el Estado del Real Decreto-ley 20/2012, de 13 de julio, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad. Así pues, teniendo en cuenta que, en virtud de lo previsto en el artículo 26 del Concierto Económico, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, el impuesto sobre el valor añadido es

mentu bakoitzean Estatuak ezarritako funtsezko eta formazko arauen bidez erregulatzen dela, foru aginduan mantendu egiten dira 102/1992 Foru Dekretuari buruzko aipamenak, eguneratuta egonez gero, eta zergaren estatu legeari buruzko aipamenak, bestelako kasuetan.

Azkenik, beharrezkoa da indargabetzea BEZaren aitorten-likidazioak agiri bakar batean aurkezteko arrantzaleen kofradien eskaerei buruzko azaroaren 11ko 662H/87 Foru Agindua, hari jarraituz Gipuzkoako arrantzaleen kofradiak gaitu baitziren ontzi jabetzat hartutako hainbat subjektu pasiboei dagozkien balio erantsiaren gaineko zergaren aitorten-likidazioak agiri bakar batean aurkeztu zituzten. Horren guztiaren arrazoia da aurkezpen sistema horrek Zerga Administrazioari datuak kontrolatzeko zailtasun handia ekartzea eta, ondorioz, baliabide publiko ugari erabiltzea, kontuan hartuta sistema hura ezarri zenetik sektorean eraldaketa sakona egon dela, teknika informatikoak eta Internet zabaldua. Horiek horrela, banakako aurkezpeneko sistema orokorrera egokitzea ez da izango oztopo gaindiezina. Indargabetzeak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu.

Horren indarrez, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Balio erantsiaren gaineko zergaren 308 eta 309 ereduak onartzea.

Bat. Onartu egiten da 308 ereduak, foru agindu honetan I. eranskin gisa ageri dena, eta honela izendatuta datorrena: «Itzulketa eskaera. Baliokidetasun errekarua, BEZaren Erregelamenduko 30 bis artikulua eta balio erantsiaren gaineko zergaren noizbehinkako subjektu pasiboak».

Bi. Onartu egiten da 309 ereduak, foru agindu honetan II. eranskin gisa ageri dena, «Balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazio ez-aldizkakoa».

2. artikulua. 308 ereduak aurkeztera behartuak.

Balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasibo hauek daude behartuta 308 ereduak erabiltzera:

a) Garraiobide berrien noizbehinkako entrega salbuetsiak egiten dituzten subjektu pasiboak, garraiobidea eskuratzean jasan edo ordaindutako kuotak itzultzeko eskatzen badute abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duenak, 93.2 eta 94.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

b) Bidaiarien edo merkantzien errepide bidezko garraioan jarduten duten subjektu pasiboak, baldin eta, zergaren araubide erraztuan tributaturik, BEZaren Erregelamenduko 30.3 artikuluko b) eta c) letretan ezarritako beharrezkoak beterik, eta jarduera horri atxikitako garraiobideak eskuratzeagatik zerga horretan kengarriak diren kuotak aurrez ordaindurik, kuota horien itzulketa eskatzen badute eta araubide erraztuari dagozkion hiru hilabeteko autolikidazioetan kuota kengarri horiek aipatu ez badituzte edo aipatzeko asmorik ez badute zergaren erregelamenduko 38.2 artikuluan xedatutakoari jarraituta. Halaxe izango da, baita ere, garraiobideak merkantzien errepide bidezko garraioan jarduten duten subjektu pasiboek eskuratutuztenean, baldin eta aurreko baldintza guztiak beterik, garraiobide horiek Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentarauaren II. eranskinen N1 kategoriakoak badira –baimendutako gehieneko masa gutxienez 2.500 kilogramokoa dutenak– edo eranskin horretako N2 eta N3 kategorietan jasota badaude.

c) Baliokidetasun errekaruaren araubide bereziaren arabera tributatzen duten subjektu pasiboak, betiere bidaiarien araubideko esportatzaileei itzulketak egin badizkiete, abendu-

un tributo concertado que en los territorios históricos se rige por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado, la orden foral mantiene las remisiones al Decreto Foral 102/1992, en la medida en que están actualizadas, y a la ley estatal del impuesto en caso contrario.

Por último, resulta necesario derogar la Orden Foral 662H/87, de 11 de noviembre, sobre solicitudes de las Cofradías de Pescadores para la presentación de las declaraciones-liquidaciones del IVA en un solo documento, en virtud de la cual se habilitó a las Cofradías de Pescadores de Gipuzkoa para presentar en un solo documento las declaraciones-liquidaciones del Impuesto sobre el Valor Añadido correspondientes a diversos sujetos pasivos con calificación de armadores. Y ello motivado por las dificultades de control de datos que para la Administración tributaria conlleva este sistema de presentación, con el consiguiente consumo adicional de recursos públicos, y teniendo en cuenta la profunda transformación que se ha producido en el sector desde su aprobación, con la extensión de las técnicas informáticas y de internet, de manera que la adaptación al sistema general de presentación individualizada no resultará un obstáculo insalvable. La derogación surte efectos a partir del 1 de enero de 2018.

En su virtud

DISPONGO

Artículo 1. Aprobación de los modelos 308 y 309 del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Uno. Se aprueba el modelo 308 «Solicitud de devolución. Recargo de equivalencia, artículo 30 bis del Reglamento del IVA y sujetos pasivos ocasionales del Impuesto sobre el Valor Añadido», que figura como anexo I adjunto a la presente orden foral.

Dos. Se aprueba el modelo 309 «Autoliquidación no periódica del Impuesto sobre el Valor Añadido», que figura como anexo II adjunto a la presente orden foral.

Artículo 2. Obligados a presentar el modelo 308.

El modelo 308 deberá ser utilizado por los siguientes sujetos pasivos del impuesto sobre el valor añadido:

a) Aquellos que realicen con carácter ocasional entregas exentas de medios de transporte nuevos, y que conforme con lo dispuesto en los artículos 93, apartado dos, y 94, apartado dos, del Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, por el que se adapta la normativa fiscal del Territorio Histórico de Gipuzkoa a la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, soliciten la devolución de las cuotas soportadas o satisfechas en la adquisición del medio de transporte.

b) Aquellos que ejerzan la actividad de transporte de viajeros o de mercancías por carretera, tributen por el régimen simplificado del Impuesto y, cumpliendo los requisitos establecidos en el artículo 30.3.b) y c) del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, hayan soportado cuotas deducibles del Impuesto como consecuencia de la adquisición de medios de transporte afectos a dicha actividad, y en el supuesto de que los citados medios de transporte hayan sido adquiridos por sujetos pasivos que ejerzan la actividad de transporte de mercancías por carretera, estén comprendidos en la categoría N1, que tengan al menos 2500 kilos de masa máxima autorizada, o comprendidos en las categorías N2 y N3 del anexo II de la Directiva 70/156/CEE, del Consejo, de 6 de febrero de 1970, y que soliciten la devolución de dichas cuotas, siempre que no hayan consignado, o en su caso, no vayan a consignar, las referidas cuotas deducibles en las autoliquidaciones trimestrales correspondientes al Régimen simplificado de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 38.2 del Reglamento del Impuesto.

c) Aquellos sujetos pasivos que tributen en régimen especial del recargo de equivalencia, que hayan efectuado las devoluciones a exportadores en régimen de viajeros a que se refiere

ren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 117. artikuluan jasotakoaren arabera, eta itzultitako kuoten zenbatekoa berreskuratzeko eskatzen badute.

d) Erakunde publikotzat edo gizarte izaerako establezimendu pribatutzat hartzen diren subjektu pasiboak, ondasunak eskuratzean jasandako kuotetatik guztiz kendu ezin izan dituzten kopuruaren itzulketa eskatzeko, gero ondasun horiek haien jarduera humanitario, karitate edo hezkuntzako eremuan Batasunetik kanpora esportatzen dituzten organismo aitortuei entregatzen dizkietenean, salbuespenerako eskubidea onartu ondoren, 1992ko abenduaren 28ko 102/1992 Foru Dekretuak 21. artikuluan 4. zenbakiko bigarren paragrafoan jasotakoaren arabera.

3. artikulua. 309 eredia aurkeztera behartuak.

309 eredia aurkeztera behartuta daude:

1. Jarraian aipatzen diren pertsonak eta entitateak, baldin eta ondasunen batasun barruko eskurapenak egin badituzte eta balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako identifikatuta badaude, bai eskurapen horien bolumena 1992ko abenduaren 29ko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 102/1992 Foru Dekretuak 14. artikuluan jasotako mugara iristeagatik eta bai artikulua horretan jasotako aukera baliatzeagatik:

a) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezira bildutako subjektu pasiboak, baldin eta ondasunen batasun barruko eskurapenak araubide horretan dagoen jarduera garatzera bideratuta badaude.

b) Zergaren kenkari osoa edo partziala egiteko eskubiderik ematen ez duten eragiketak bakarrik egiten dituzten subjektu pasiboak.

2. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezia aplikagarri zaien jarduerak bakarrik egiten dituzten subjektu pasiboak, baldin eta beren jardueraren barruan balio erantsiaren gaineko zergari lotuta eta salbuetsi gabe dauden ondasun higiezinaren entregak egiten badituzte eta, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legearen 84. artikuluan bat apartatuko 2., 3. eta 4. zenbakietan jasotakoari jarraituz, zerga horren subjektu pasiboak badira.

3. Baliokidetasun errekaruaren araubide berezia aplikagarri zaien jarduerak bakarrik egin eta ondasunen batasun barruko eskurapenengatik zerga hori eta errekaru hori ordaintzera behartuta dauden balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasiboak, bai eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legeak 84. artikuluan bat apartatuko 2. zenbakian jasotako kasuetan ere.

4. Enpresari edo profesionalak ez diren pertsonak edo entitateak, baldin eta garraibide berrien batasun barruko eskurapenak egiten badituzte kostu bidez.

5. Enpresari edo profesional moduan aritzen ez diren pertsona juridikoak, baldin eta zergari lotuta dauden eta garraibide berriez bestekoak diren ondasunen batasun barruko eskurapenak egiten badituzte eta enpresari edo profesionaltzat hartzen badira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legearen 5. artikuluan lau apartatuan jasotakoaren arabera.

6. Administrazioaren edo auzitegien nahitaezko exekuzio prozeduretan esleipendun gertatzen direnak, balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez enpresari edo profesionalak direnean, baldin eta ahalmena badute zergaren subjektu pasiboaren izenean eta kontura autoliquidazioa aurkezteko eta esleipen eragiketarik ateratzen den zenbatekoa ordaintzeko, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduko bosgarren xedapen gehigarrian jasotako eran.

7. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezira bildutako subjektu pasiboak, baldin eta oker jasotako kon-

del artículo 117 del citado Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, y que soliciten el reintegro del importe de las cuotas que hayan sido objeto de devolución.

d) Aquellos que tengan la consideración de Ente público o de establecimiento privado de carácter social, para solicitar la devolución de las cuotas soportadas que no hayan podido deducirse totalmente, en la adquisición de bienes que sean objeto de una entrega posterior a Organismos reconocidos que los exporten fuera del territorio de la Comunidad en el marco de sus actividades humanitarias, caritativas o educativas, previo reconocimiento del derecho a la exención, de acuerdo con lo establecido en el segundo párrafo del número 4.º del artículo 21 del citado Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre.

Artículo 3. Obligados a presentar el modelo 309.

Este modelo 309 será presentado:

1.º Por las personas y entidades que se indican a continuación, en la medida en que realicen adquisiciones intracomunitarias de bienes y estén identificadas a efectos del impuesto sobre el valor añadido por haber alcanzado su volumen de adquisiciones intracomunitarias el límite establecido en el artículo 14 del Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, o por haber ejercitado la opción contemplada en el mismo artículo:

a) Sujetos pasivos acogidos al régimen especial de agricultura, ganadería y pesca, cuando se trate de adquisiciones intracomunitarias de bienes destinados al desarrollo de la actividad sometida a dicho régimen.

b) Sujetos pasivos que realicen exclusivamente operaciones que no originan el derecho a la deducción total o parcial del Impuesto.

2.º Por los sujetos pasivos que realicen exclusivamente actividades a las que sea aplicable el régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca, cuando realicen en el ejercicio de su actividad entregas de bienes inmuebles sujetas y no exentas del impuesto sobre el valor añadido, así como cuando resulten ser sujetos pasivos de dicho tributo, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 84, apartado uno, número 2.º, 3.º y 4.º de la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido.

3.º Por los sujetos pasivos del impuesto sobre el valor añadido que realicen exclusivamente actividades a las que sea aplicable el régimen especial del recargo de equivalencia y que estén obligados al pago de dicho impuesto y del citado recargo por las adquisiciones intracomunitarias de bienes que efectúen, así como en los supuestos contemplados en el artículo 84, apartado uno, número 2.º de la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido.

4.º Por las personas o entidades que no tengan la condición de empresarios o profesionales y realicen adquisiciones intracomunitarias de medios de transporte nuevos, a título oneroso.

5.º Por las personas jurídicas que no actúen como empresarios o profesionales, cuando efectúen adquisiciones intracomunitarias de bienes distintos de los medios de transporte nuevos que estén sujetas al impuesto, así como cuando se reputen empresarios o profesionales de acuerdo con lo dispuesto por el apartado cuatro del artículo 5 de la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido.

6.º Por los adjudicatarios, en los procedimientos administrativos o judiciales de ejecución forzosa, que tengan la condición de empresarios o profesionales del impuesto sobre el valor añadido, que estén facultados para presentar, en nombre y por cuenta del sujeto pasivo del tributo, la autoliquidación correspondiente y para ingresar el impuesto resultante de la operación de adjudicación, en los términos previstos en la disposición adicional quinta del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

7.º Por los sujetos pasivos acogidos al régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca cuando deban efectuar el

pentsazioak itzuli behar badituzte abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak 133. artikuluan xedatutakoaren arabera.

8. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezira bildutako subjektu pasiboak, araubide berezi hori aplikatzen hasteagatik egindako erregularizazioak ordaintzen dituztenean Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 49 bis artikuluan xedatutakoaren arabera.

9. Enpresari edo profesional moduan aritzen ez diren pertsonak eta entitateak, bai eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legearen 20. eta 26. artikuluetan jasotako eragiketa salbuetsiak egiten dituzten subjektu pasiboak ere, baldin eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legearen 80.bost.5 artikuluan jasotakoari jarraituz erabat edo partzialki ordaindu gabe gelditzen diren eragiketen zerga oinarria aldatzearen ondorioz Herri Ogasunaren aldeko kreditu baten zordunak badira.

10. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legearen 91.bi.1.4 artikuluan jasotako tasa murriztuaren aplikazioaren onuradunak, ibilgailuen batasun barruko entregari edo eskurapenari lotutako eragiketetan, baldin eta, zergaren subjektu pasiboak ez izanik, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 26. bis.bi.1.2 artikuluan jasotako beharkizuna betetzen ez badute.

Era berean, 309 eredia aurkeztera derrigortuta dago, zergaren subjektu pasiboa ez izanik, balio erantsiaren gaineko zergan onura fiskalak aplikatzeko exijitutako beharkizunak –salbu inportazioaren zerga egitateari aplikagarri zaizkionak– ez bete-teagatik bere zerga egoera erregularizatu behar duen edozein pertsona edo entitate.

11. Zergaren bestelako subjektu pasiboak, haienztat hala erabakitzen denean.

4. artikulua. 308 eta 309 ereduak aurkezteko moduak.

Bat. Modu hauek daude 308 eta 309 ereduak aurkezteko:

a) Bitarteko elektronikokoak. Aurkezpen elektronikoa egiteko, Internetera jo behar da eta bertan «Zergabidea» sistema erabili, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikokoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, ezarritakoaren arabera.

b) Paperezko euskarria, foru agindu honetan eranskin gisa ageri den formatuen arabera. Euskarriak bi ale ditu: Administrazioaren alea eta interesdunarena.

Bi modutan eskuratu ahal izango dute interesdunek paperezko euskarria: 308 edo 309 eredia PDF formatuan inprimatuz Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik (<http://www.gipuzkoa.eus>) eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialetik (<http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna>), edo, bestela, «Zergabidea» sistematik zuzenean, betiere eredia bete eta gero.

Honako toki hauetan aurkeztu daiteke 308 ereduaren paperezko euskarria: abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartutako Zerga-bilketa Erregelamenduak zerga-bilketan laguntzeko baimentzen dituen entitateetako batean (bankuak, aurrezki kutxak edo kreditu kooperatibak), herritarren arretarako bulegoetan edo Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan.

309 ereduaren paperezko euskarria nahitaez aurkeztu behar da abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartutako Zerga-bilketa Erregelamenduak bilketan laguntzeko

reintegración de las compensaciones indebidamente percibidas, según lo dispuesto en el artículo 133 del Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre.

8.º Por los sujetos pasivos acogidos al régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca cuando realicen el ingreso de las regularizaciones practicadas como consecuencia del inicio en la aplicación del citado régimen especial, según lo dispuesto en el artículo 49 bis del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

9.º Por las personas y entidades que no actúan como empresarios o profesionales, así como por aquellos sujetos pasivos que realizan exclusivamente las operaciones exentas comprendidas en los artículos 20 y 26 de la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido, que resulten deudores de un crédito a favor de la Hacienda Pública, como consecuencia de la modificación de la base imponible de las operaciones que resulten total o parcialmente impagadas, según lo dispuesto en el artículo 80.Cinco.5.º de la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido.

10.º Por los beneficiarios de la aplicación del tipo reducido del impuesto sobre el valor añadido, establecido en el artículo 91.Dos.1.4.º de la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido, en las operaciones de entregas o adquisiciones intracomunitarias de vehículos, que no siendo sujetos pasivos del impuesto, incumplan el requisito establecido en el artículo 26 bis.Dos.1.2.º del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Igualmente, deberá presentar el modelo 309 cualquier otra persona o entidad que no sea sujeto pasivo del impuesto que deba regularizar su situación tributaria como consecuencia del incumplimiento de los requisitos exigidos para la aplicación de beneficios fiscales en el impuesto sobre el valor añadido excluidos los aplicables al hecho imponible importación.

11.º Por aquellos sujetos pasivos del impuesto para los que así se determine.

Artículo 4. Formas de presentación de los modelos 308 y 309.

Uno. Las formas de presentación de los modelos 308 y 309 son las siguientes:

a) Por medios electrónicos. La presentación por medios electrónicos se realizará por Internet, desde el sistema «Zergabidea», con arreglo a lo previsto en Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

b) Soporte papel, que se deberán ajustar a los formatos que figuran como anexos de la presente orden foral. Los citados soportes se componen de ejemplar para la Administración y de ejemplar para el interesado.

El referido soporte se podrá obtener, bien mediante la impresión del modelo 308 o 309 en formato PDF que se pondrá a disposición de los interesados en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la cual se podrá acceder a través de la dirección <http://www.gipuzkoa.eus>, y en la página web oficial del Departamento de Hacienda y Finanzas, en la dirección <http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna>, bien mediante la impresión efectuada desde el sistema «Zergabidea», una vez cumplimentado el modelo correspondiente.

El modelo 308 en soporte papel se podrá presentar a través de las entidades autorizadas para actuar como colaboradoras en la recaudación de los tributos (bancos, cajas de ahorro o cooperativas de crédito), en los términos previstos en el Reglamento de Recaudación, aprobado por el Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, en las oficinas de atención ciudadana o en el Servicio de Impuestos Indirectos del Departamento de Hacienda y Finanzas.

El modelo 309 en soporte papel deberá presentarse en las entidades autorizadas para actuar como colaboradoras en la recaudación de los tributos (bancos, cajas de ahorro o cooperati-

baimentzen dituen entitateetako batean (bankuak, aurrezki kuxtak edo kreditu kooperatibak).

Bi. 308 eta 309 ereduak subjektu pasiboa ez den beste pertsona batek aurkeztu ditzake, baina, horretarako, beharrezkoa da jaso duen ordezkari-tza baimenduta egotea Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duen azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduak ezarritakoarekin bat.

5. artikulua. 308 eta 309 ereduak aurkezteko epea.

Bat. Foru agindu honetako 2. artikulua a) letran aipatutako subjektu pasiboek hogeita hamar egun natural izango dituzte, 308 eredu aurkezteko, garraio-bidea entregatzen den egunetik aurrera.

Horrelakoetan, eredu saldutako ibilgailu bakoitzeko aurkeztu beharko da. Ezingo da bi ibilgailu edo gehiago aldi berean likidatu, ezta ere eredu bakarrean likidatu garraio-bide berrien batasun barruko salmentak eta bidaiarien araubidean egindako esportazioengatik baliokidetasun errekarguan dauden subjektu pasiboek egindako itzulketak.

Foru agindu honetako 2. artikulua b) letran aipatutako subjektu pasiboek garraio-bidea eskuratu ondorengo hilabetearen lehen 25 egun naturalen barruan aurkeztu behar dute 308 eredu.

Foru agindu honetako 2. artikulua c) letran aipatutako subjektu pasiboek urteko hiruhileko bakoitza amaitu ondorengo hilabetearen lehen hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztu behar dute 308 eredu. Aldiz, azken likidazio aldiari dagokiona ondorengo urteko urtarilaren lehen hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu beharko da.

Kasu horretan, hiruhileko bakoitzeko autoliquidazioan bakar-bakarrik konputatuko dira subjektu pasiboak hiruhilekoaren barruan benetan egin dituen itzulketak.

Foru agindu honetako 2. artikulua d) letran aipatutako 308 eredu hiru hilabete epean aurkeztuko da, itzulketarako eskubidea sortzen duen ondasun entrega egin denetik aurrera.

Bi. Likidatu beharreko hiruhilekoa amaitu ondorengo hilabetearen lehen hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztu behar da 309 eredu eta hari dagokion diru sarrera egin. Aldiz, azkeneko likidazio aldiari dagokion aitorpena ondorengo urteko urtarilaren lehen hogeita hamar egunen barruan aurkeztu beharko da.

Epemugak egun baliogabean egokituz gero, ondoko lehen egun baliodunean amaitzen direla joko da.

Garraio-bide berrien batasun barruko eskurapenen autoliquidazioak aurreko apartatuan xedatutakotik kanpo geratzen dira. Izan ere, horien kasuan, eragiketa egin eta hogeita hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko da 309 eredu, eta betiere garraio-bide horiek behin betiko matrikulatu baino lehen.

Administrazioaren edo auzitegien nahitaezko exekuzio-prozeduren kasuan, aurkezpen epea hilabeteak izango da esleipenaren zenbatekoa ordaintzen denetik aurrera.

Xedapen iragankor bakarra.

308 eta 309 ereduak «Zergabidea» sistemaren bidez aurkezteko aukera gaitzen ez den bitartean, eredu horien aurkezpen elektronikoa formularioa betetz egingo da, betiere 2017ko ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde

vas de crédito), en los términos previstos en el Reglamento de Recaudación, aprobado por el Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto.

Dos. Los modelos 308 y 309 podrán ser presentados por persona distinta del sujeto pasivo siempre que la representación haya sido autorizada en los términos previstos en la Orden Foral 582/2014, de 5 de noviembre, por la que se regula el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Artículo 5. Plazo de presentación de los modelos 308 y 309.

Uno. La presentación del modelo 308 por los sujetos pasivos a que se refiere la letra a) del artículo 2 de esta orden foral, se efectuará en el plazo de treinta días naturales a contar desde el día en que tenga lugar la entrega del medio de transporte.

En este caso, la presentación del referido modelo deberá realizarse por cada vehículo entregado, no siendo posible la liquidación simultánea de dos o más vehículos, ni tampoco liquidar en un solo modelo las entregas intracomunitarias de medios de transporte nuevos y las devoluciones a los sujetos pasivos en recargo de equivalencia por las exportaciones realizadas en régimen de viajeros.

La presentación del modelo 308 por los sujetos pasivos a que se refiere la letra b) del artículo 2 de esta orden foral, se efectuará durante los 25 primeros días naturales del mes siguiente a aquél en el cual se haya realizado la adquisición del correspondiente medio de transporte.

